

Erosketa bonuak, Tolosako merkataritza suspertzeko

Tolosako Udalak 'Suspertu Tolosa' kanpaina abiarazi berri du; aurrez izena eman duten saltokietarako hiru bonu mota erosi ahal izango dira eta udalak erosketa osatuko du // 2

Denboraldia amaituta, datorrenari begira daude TAKEn

Saskibaloia ligak amaituta TAKE klubeko bi talde nagusietako entrenatzaileek balantzea egin dute; jokalariek entrenatzen jarraitu dute konfinamenduan, baina mugekin // 7



TOLOSA

TAIWANGO TXOTXONGILOAK

Topic zentroa egoera berrira egokitu da eta Taiwango 180 txotxongilorekin osatutako erakusketa birtualki bisitatzeko aukera eskaintzen du; urte berezia da gainera, txotxongiaren etxeak hamar urte betetzen baititu aurten // 4



Astehenean itzuli ziren establezimenduak aktibitatera; hori bai, bezeroek aurrez eskatu behar dute hitzordua. J. MIRANDA

‘Suspertu Tolosa’, herria berriro martxan jartzeko plana

Hiru ardatz izango ditu udalak abiarazitako kanpainak: soziala, ekonomikoa eta kulturala. Bertan kontsumitzeko aukera egongo da, aurrez ordaindutako erosketa bonuekin.

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Tolosako Udalak asteak daramatza herriko eragile ekonomikoekin biltzen eta elkarlanean. Lehenik, galdetegi bat kaleratu zuten, herriko ekoizle, dendari eta merkatarien informazioa bilduz, datu-base bat osatzeko. Hala, apirilaren 17an sortu zen Hiri Ekonomiaren Mahaia, beharren azterketa bateratuarekin, krisiari aurre egiteko plana zehaztu eta garatzeko. Krisiak gehien kolpatu dituen sektore eta kolektiboak babestu eta horien beharrei erantzutea da helburua.

Suspertze planak hiru ardatz nagusi izango ditu: soziala, ekonomikoa eta kulturala. Olatz Peon alkateak dioenez, «herritarren ongizatea bermatzen jarraituko dugu, eta lehentasunezkoa izango da, baita suspertze ekonomiko eta kulturala ere. Izan ere, ekintzen faktoria bat da Tolosa, kultura-aberastasun izugarria dugu eta urtean zehar egiten diren jarduerak eta ekimenek eragin zuzena eta erabat onuragarria dute gure hiri ekonomiaren ekosisteman». Horrela, *Suspertu Tolosa* izeneko kanpaina abiarazi du udalak, herritarrekin elkar-

lanean. «Tolosa berriz ere martxan jartzea nahi dugu», gaineratu du Peonek.

Krisi honek gogor kolpatu ditu arlo soziala eta baita ekonomikoa ere, eta modu berezian eragin die gainera, tokiko merkataritzari eta ateak itxi behar izan dituzten negozio guztiei. Horregatik, kanpainako lehen ekintzak establezimendu horiei guztiei laguntza eta bultzada ematea du helburu.

BERTAN EREIN, BERTAN JASO

Eta zein izango da ekintza hori? Bada, udalak, Tolosa&Co elkar-tearekin lankidetzan, erosketa-bonuak jarri ditu abian. «Helburu bikoitza izango dute: batetik, Tolosako herritarrei eta familiei laguntzea, eta bestetik, tokiko kontsumoa sustatzea, herritarren artean kontsumo kontzientzia bultzatu asmoz. Beraz, kanpaina soziala izatea nahi da».

Aurrez ordaintzeko bonuak merkatariei eta zerbitzuen sektoreko langileei epe motzeko diru-sarrerak bermatzeko baliatu nahi dituzte. Era berean, tokiko saltokiek hasieran izan dezaketan likidezia faltari aurre egiten lagunduko dute. Hortaz,

tokiko merkataritzan eta zerbitzuetan jarriko du arreta proiektuaren lehen ekintzak, eta udalak 80.000 euro bideratuko ditu horretara. Epe motz-ertainera, bonuen salerosketarekin 240.000 euroko inpaktu ekonomikoa sortzea aurreikusten da.

Udalak bihartik aurrera eman nahi dio indarra kanpainari. Orduan jarriko dira bonuak salgai, eta maiatzaren 29ra bitarte izango da aukera. Erosketa egiterakoan, bezeroak bonua zein dandatan gastatu nahi duen adierazi behar du. Hiru bonu mota egongo dira: 10, 20 eta 30 eurokoak. Udalak beste 5, 10 eta 15 euro gehituko dizkie. Beraz, dendentan erabiliko den zenbatekoa 15, 30 edota 45 eurokoa izango da. Bakoitzak bonu bat eros dezake denda bakoitzean, eta gehienez ere, lau bonu eros daitezke, laurak denda desberdinetan erabiltzeko. Bonuen balioa erosten den unetik 24 ordutara aktibatuko da.

Bonuen salmenten lehen fasea herri mailan egingo bada ere, bigarren fasean eskualdera mugitzeko nahia azaldu du udalak. Hala ere, asmo horien inguruko informazioa aurrerago helarazi-

ko dutela adierazi dute udaletik. Interesa dutenek, www.suspertutolosa.eus/faqs helbidera jo dezakete, bonuen informazio gehiago izateko.

AZKEN EGUNA SALTOKIENTZAT

Gaur amaitzen da kanpainan izena emateko epea. Parte hartu nahi duten saltoki eta zerbitzu guztiek, gaurko 15:00rak baino lehen eman beharko dute izena www.suspertutolosa.eus webgunean. Parte hartzaileek ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, hala nola, Tolosan gutxienez establezimendu bat izatea, alarma-egoeran itxita egon edo fakturazioa gutxienez %75 murriztu izana, zehaztutako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafeen barruan egotea eta 15 langile baino gutxiago izatea.

Hiru bonu mota egongo dira, 10, 20 eta 30 eurokoak, eta udalak beste 5, 10 eta 15 euro gehituko dizkie.

Arestian aipatu bezala, merkataritza izango da *Suspertu Tolosa* proiektuaren lehen lan lerroa. Baina ez da bakarria izango. Bonuez gain, saltoki eta establezimenduetan homologatutako babes-pantailak banatu ditu udalak, eta hala egiten jarraituko du horiek irekitzen joan ahala.

EKINTZA GEHIAGOKO KANPAINA

Merkataritzaren egin bezala, ostalaritzari, turismoari eta kulturari zuzendutako laguntza-lerroak ere lantzen ari da udala, eta laster horiek ere martxan jartzea aurreikusten dute. Datozen aste eta hilabeteetan, krisiaren aurkako plana aurkezteaz gain, *Suspertu Tolosa* kanpainaren baitan esparru desberdinei lotuta antolatutako ekintza zehatzak ere abiaraziko ditu udalak. «Tolosar guztien babesa, inplikazioa eta konpromisoa beharko ditu ekimen honek, gure herriak berezkoa duen bizia berreskuratu dezan, elkarrekin eta elkarlanean lan eginez», diote udaletik.

Era berean, aurtengo aurrekontua behar eta lehentasun berrietara berregokitzen ari da udala, baita 2019ko likidazioa egiten ere, eskura dituen baliabide guztiak Covid-19ak utzitako ondorio sozio-ekonomikoei aurre egitera bideratzeko. Erakundearen laguntzak ere aztertzen ari da (Foru Funtsetik %20-25 gutxiago jasoko da), horiek osatzeko helburuarekin, herritarrei erantzun integrala emateko; martxan jarritako neurriak eraginkorrak izan daitezken.

Orain arteko boladarik onena: hiru egun positibo berririk gabe

Bi eguneko boladak izan dira, eta oraingoan, langa hori gaingitza lortu da, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera.

Erredakzioa

Astearte iluntzeko 20:00ak arteko datuak kaleratu zituen, atzo eguerdian, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Bertan adierazten duenaren arabera, azken 72 orduetan ez dute positiborik zenbatu eskualdean.

Horrez gain, Asuncion klinikan gaixorik ospitaleratu gabe jarraitzen dute, Osasun Sailetik esan dutenez.

Orain arte 232 herritar kutsatu dira COVID-19 birusarekin, datu horien arabera. Horietatik erdiak, 116, Tolosan antzeman dituzte.

Larramendi kaleko trafikoan eta autobus geltokian, aldaketak

TOLOSA // Gaurtik aurrera, berritze eta konpontze lanak direla eta, zerbitzutik kanpo geratuko da Larramendi kaleko 6. zenbaki parean dagoen autobus geltokia. Autobusa geltoki horretan geratu ordez, Jon Andoni Irazusta kalean (biala) Telepizzak duen lokalaren ondoko geltokian geratuko da. Bestalde, hilaren 13tik aurrera, Larramendi kaleko 3. zenbakiaren parean zorua konpontzen hasiko dira; bide hori itxita egongo da bi egunez.

'Kutsaldian' liburua itzuli du Xabier Olarra itzultzaile tolosarrak

TOLOSA // Otsailaren 29an hasi zen Paolo Giordano (Turin, 1982) idazle italiarra *Kutsaldian* liburua idazten, herrialdea itxialdian sartzeko egun gutxi falta zirela. Pandemia indarrez zabalduz joan ahala, gogoetak biltzen jarraitu eta txatalez txatal osatu du liburua; hala, COVID-19aren krisia ardatz duen lehen lana bihurtu da. Xabier Olarrak ekarri du euskarara Fernando Reyren batera eta Erein argitaletxeak plazaratuko du.

Naparraren inguruko dokumental bat egiten ari dira familiarekin

Ekainaren 11 bitarte, dokumentala finantzatzeko ekarpena egin daiteke 'Verkamin' webgunean; Lizartzako Udalak herritarrak animatu ditu ekimenean parte hartzera

Irati Saizar Artola Lizartza

Aurten 40 urte beteko dira Jose Migel Etxeberria *Naparra* azkeneko ikusi zutenetik. Komando Autonomo Antikapitalisten ki-dea zen, 1980ko udaberrian desagerrarazi zutenean. Batallón Vasco Español talde parapolizialak hartu zuen bere gain desagerpen hura. 40 urte geroago, Iñaki Alforja eta Iban Toledo Naparraren auziari buruzko dokumental bat ari dira grabatzen. Familiarekin batera ari dira filma lantzen eta bertan «40 urte hauetan familiak nola aurre egin dien azaldutako traba guztiei» jasoko dute. «Bakartasun osoan ibili da familia, oso laguntza gutxirekin», gehitu du Toledok.

Dokumentala aurrera atera ahal izateko, finantzaketa kanpaina bat abiarazi dute, eta Naparraren sendiak Lizartzan duen baserria dela eta, Lizartzako Udalak herritarrak animatu nahi ditu bakoitzak bere ekarpentxo egitera. *Verkamin* webgunearen bidez egin daiteke ekarpena, eta



Celes Alvarez eta Eneko Etxeberria, ama eta anaia, bolantearekin. JOSEBA ZABALZA

lagundu nahi duenak ekainaren 11 arte izango du aukera. Guztira, 15.000 euro bildu nahi dituzte.

BOLANTEA, SINBOLO

Naparraren autoa Ziburun agertu zen, jendarmeriatik gertu. Bere aita, jendarmeez deituta, Naparraren autoa azaldu zen tokira joan zen, eta jendarmeez ko-

txearekin zer egin nahi zuen galdetu ziotenean, egoera hark sortutako min eta nahasmen hartan, kotxearen bolantea desmuntatu eta etxera eraman zuen.

Bolante hori gertatutakoaren sinbolo bihurtu da, eta hortik dator dokumentalaren izenburua: *Bolante baten historia*.

Liburuak irakurtzen jarraitzeko aukera, zabalik

Udal liburutegiak itxita egon arren, eskualdeko hainbat herritan modu batera edo bestera liburuak mailegatzeko aukera eskaintzen ari dira

I.S.A.

Udaletxeetako aurrez aurreko arreta zerbitzua etetearekin batera, udal liburutegi gehienak ere itxita daude. Itxialdia arintzeko, ordea, modu batera edo bestera zerbitzua eskaintzea erabaki dute eskualdeko herri batzuek.

Esaterako, Berrobin eta Bidania-Goiatzen, aurreko astean jarri zuten zerbitzua martxan. Begoña Olamusu bi liburutegi horietako arduradunak esan duenez, «liburutegiak herritarren liburu eskaria aseko du ahal den neurrian». Liburu edo bestelakoen eskaintza herriko liburutegian dagoenera mugatuko dute, liburutegi arteko mailegu zerbitzua etenda dagoelako. Bestalde, dokumentuak inprimatzeko zerbitzua ere eskainiko dute. Edozein kasutan honako helbi-

deetara idatzi beharko dute eskaria egin nahi dutenek: berrobitarrek liburutegia@hotmail.com helbidera eta bidaniarrek, aldiz, bidaniagoiatzliburutegia@hotmail.com-era.

Berastegin ere hasi berriak dira egitasmoarekin. Haien kasuan, Facebook-eko orrialde bat sortu dute, eta egunez egun bertan zintzilikatzen dute datorren egunean eskuratu ahal izango diren liburu zerranda. Horrela, eskatu nahi duenak, liburutegia@berastegi.eus helbidera idatzi edo 637 846 385 telefono zenbakira deitu behar du, eta goizetan, 11:00etatik 13:00ak bitarte, udaletxeko arkupeetan eskuratzeko aukera jarri dute. Era berean, bakoitzak etxean dituen eta behar ez dituen liburuak uzteko otar bat jarri dute arkupeetan, aukera gehiago izateko.



ABIADURA MURRIZTEKO LANAK

Lizartzako pilotalekuaren aurreko zebrabidea altxatzeko obrak egiten ari dira aste honetan. Helburua ibilgailuen abiadura murriztea dela esan du udalak, oinezkoen segurtasuna hobetzeko. Lanek iraun bitartean gune hori itxi egingo dute tarteka, eta Plaza Soro auzotik bideratuko da trafikoa. ATARIA



ONGARRIAK, LARREETARAKO

Berastegiko larre komunalen proiektuak aurrera jarraitzen du. Mendiko larreak hobetze bidean, ongarriak bertara eraman eta banatu egin dituzte asteburuan. Berastegiko Udalak, herriko abeltzainekin eta Etorlurrekin batera proiektua bultzatzen jarraitu nahi duela azaldu du. ATARIA

Taiwan eta bere kultura etxetik ikusteko aukera

Topic-ek Taiwango txotxongiloen erakusketa berria ezagutzeko aukera eskaintzen du, birtualki. Uhartetik kanpo dagoen handiena da, era guztietako 180 txotxongiloz osatua.

Josu Artutxa Dorronsoro

Inaugurazioa martxoaren 14an zen egitekoa, baina Covid-19aren pandemiak nahitaez zapuztu zituen Topic-eko planak. Orain, berrogei urte bete ondoren, profesional talde batek erakusketa birtual bat garatu du. Taipeiko Espainiako Ekonomia eta Kultura Bulegoak eta Tolosako Txotxongiloaren Nazioarteko Zentroak elkarrekin landutako proiektua da, eta www.teatrode-marionetasdeformosa.com webgunean ikus daiteke. Taiwanetik kanpo inoiz erakutsi den txotxongilo erakusketarik handiena izateaz gain, osatuena ere bada.

Osasun krisiaren ondorioz, Tolosako zentroan inauguratzeko zen erakusketa fisikoak itxita egon beharko du, oraingoz. Etorkizunean irekitzekotan, aurtengo azaroaren 1a arte egongo da erakusketa Tolosan.

Horregatik, Taipeiko Espainiako Ekonomia eta Kultura Bulegoa buru-belarri aritu da itxialdian, ikusleek Asiako estatuaren historian zehar ibilaldi bat egiteko aukera izan dezaten. «Ezin gara etxetik irten ikustera joateko, baina erakusketa gure etxean sar daiteke, Taiwandik ekarritako pieza paregabe horiek ikusteko», azaldu dute Topic zentroko arduradunek.

MUNDU OSOAN ERREFERENTE

Era guztietako 180 txotxongiloren (hari-txotxongiloak, itzal-txotxongiloak eta gidaridunak) aukeraketaren bitartez, uharteko kultura gerturatu eta hainbat agertoki eta musika tresna tradizional ezagutzeko aukera dago. Txotxongilo bilduma zabal horretan, gainera, Taiyuango (Taipei) Txotxongiloen Antzokiko Asiako Museoko jatorrizko piezak ikusi ahal dira.

Hain justu, txotxongiloen antzerki-museo paregabea da, eta mundu osoan erreferente. Asiako txotxongiloen kultura tradizionala zaintzea eta sustatzea du helburu.

Kontinente guztietako txotxongiloen antzerkiko 10.000 artelan baino gehiago biltzen ditu; itzal eta hari-txotxongiloak dauka, eta baita eskularruko eta uretakoak ere.

Aipatzekoa da Robin Erik Ruizendaal doktorea dela erakusketaren komisarioa. Taiwango Taiyuan Txotxongiloen Antzerki Konpainiako zuzendari artistikoa da bera. Sinologian doktorea ere bada Leideneko (Herbehereak) Unibertsitatean, mundu osoko txotxongiloen antzerkiarekin lotutako erakusketa askoren komisarioa izan da.

Asiako estatuko txotxongilo moderno eta tradizionalen 20 antzerki eta musika ekoizpen baino gehiago idatzi eta zuzendu ditu, 30 herrialdetan baino gehiagotan aurkeztu direnak, eta iaz Franco-Taiwanesa Kultur Fundazioaren saria jaso zuen, txotxongiloen artea ikertzen, zaintzen eta zabaltzen egindako lanagatik.

10 URTE BETE DITU

Txotxongiloaren Nazioarteko Zentroa 2009. urteko azaroan inauguratu zen, eta hasieratik irudimenaren, berrikuntzaren eta originaltasunaren aldeko apustua egin duen proiektua izan da. Bere osotasunean txotxongiloen arteari zuzendutako Europako zentro bakarra da. Hala, txotxongiloak oinarri dituen erakusketa iraunkor bat jasotzen du museoak, tartekatzen diren aldi baterako erakusketekin.

10 urte bete dira beraz, Topic martxan jarri zela. Urteurrenaren harira, urte hasieran, Tolosako Udalak eta Topic Zentroak



Erakusketa birtualean ikus daitezkeen elementuetako batzuk. TOPIC

museoa ezagutzeko bina sarrera banatu zituzten Tolosako etxebizitza guztietara. «Urteurrena herritar guztiekin ospatu nahi da, munduko hainbat herrialdetako kultura Tolosatik bertatik ezagutzen hasteko aukera eskainiz», adierazten dute udaletik.

Esan bezala, gonbidapen horien banaketa egungo alarma egoera ezarri aurretik jarri zen martxan, Topic museoa ixteko agindua jaso aurretik, alegia. Hala, Tolosako etxe guztietara banatu diren gonbidapenetan trukea apirilaren 30era arte egin ahaliko dela zehazten bada ere, eta osasun larrialdiak eragin duen itxialdia tarteko, epe hori zabaltzea erabaki dute Tolosako Udalak eta Topic zentroak.

Ondorioz, etxean egotera behartzen gaituen ezohiko egoera hau amaitu eta normaltasunera itzultzean, Topic museoak gordetzen dituen altxorak ezagutzera joateko gonbita egiten die udalak tolosar guztiei, «herrian ditugun altxorak ezagutu eta tolosar guztion zati den kulturaz gozatzeko».

Bitartean, etxetik, www.topic-tolosa.com webguneko bisita birtualaren bidez, museoaren eskaintza ezagutzeko aukera dute herritarrek.

Fantasia ate joka, bertan bezala sentiarazteko

J. Artutxa Dorronsoro

Txotxongiloen museoan ere eragina izan du gizartea eraldatzen ari den osasun krisi larriak. Noiz, eta bere hamargarren urteurrena ospatzen ari zenean. «Egun arraroak dira, hori egiaztatu dugu, baina dena ematen ari gara hurbil sentiarazteko eta txotxongiloak konfinamenduan bidelagun izateko», diote.

Hala ere, arazoari irtenbidea bilatzen aritu dira. «Fantasiazko mundu honetan ez dago aspertzeko astirik. Denerako aukera dugu: ikasteko, jolasteko, txotxongiloak egiteko eta museoan modu berezian bisitatzeko». Mariona «maitearen» falta sumatuko dutelakoan, ez kezkatzeko esan diete herritarrei. «Ondo dago, eta bera ere etxean geratzen da».

Hain justu, jarraitzaile guztien gana heltzeko asmoz, programa berezi batekin dihardute. Egune-

ro, 18:00etan, Marionak, museo-ko txotxongilo bat aukeratu, eta hari buruzko sekretu bat kontatzen du. Astelehenero eta ostegenero, 17:00etan, Marionarekin hitz egiteko aukera izaten da. Asteartero eta ostiraleroko, 17:00etan, Platopic-eko tailerrak izaten dira Karmele eta Junerekin, «etxean aurki daitezkeen elementuekin txotxongiloak eginez dibertitzeko». Azkenik, asteazkeneko, 12:00etan, Karmele bideo bidezko saioak eskaintzen dizkiete helduei, irakasleei eta begiraleei. Bideo horiek jarraipena izango dute aurrerago, TOPIC+ proiektuan.

Etxean ere «ondo pasa daitekeela» gogorarazten dute museotik. Gainera, egindako txotxongiloen marrazkiak edo argazki eta bideoak sare sozialetan partekatze edo mariona@cittolosa.com helbidera bidaltzeko eskatzen dute. «Kalera ateratzen garenean, lagunei, senideei eta Marionari erakutsiko dizkiegu».



Deitura	t	Denbora	t	Ale landare	t	Emakume		
Belgikako hiriburua		Behizaina		Juntagailua		andre		
↓		t		t		t		
Izena	↓							
Senidea								
↓					500	↓		
					Nafarroako udalerria			
Lehen bikoitia	↓			Txakur	↓	t		
Maiz askotan				Erbioa				
Erabakitzeko ahalmena	t	Emakume izena	t	Sutea	↓	t		
Arabiako herritar		Amona		Irurako herritar				
↓		t		t				
					Egoki, ongi	↓	t	
					Adar			
Azpikeriak	↓				t			
Aita						Ikastaroen hasieran	↓	
↓						Lilia		
			H2O	↓		Sorteria	↓	t
			Galxoa			Katilu txikia		
Indianoa	↓		t			t		
Dardara								Nafarroako udalerria, Malerrekan
↓						Grabatu	↓	t
						Oinaze eman		
Bokal mehea	↓		Asiako estatua	↓		t		
Haurra			Gozo			Egile atzizkia	↓	
↓		t				Ez da gaztelaniar		Kontso-nantea Har ezazu!
				Aldatu	↓	t		t
				Aurritzia				
Ezeztatzeko	↓			Noblezia titulu	↓	t		
Kaio mota txikia				Atzizki txiki-garria				Txakur
↓			t					Jainko egiptoarra
						Nafarroako kontzejua	↓	t
						Bokala		
Begiz egiten den keinu	↓					Urteko 6. hilabete	↓	t

Bizkaitar abeslaria eta musikaria

Sudoku erraza

			1				7	
8				7	4		5	
	4				2		8	
	8	5			1			
6			8		5			2
			9			8	3	
	5		3				2	
	2		4	6				7
	6				9			


Sudoku ez horren erraza

3			5					
4		9			8	3		
6				3	2			
2		6					1	
	3						5	
	8					6		2
			7	4				9
		5	9			2		7
					1			3

49 egun egin ditugu etxean sartuta...ze ondorio atera duzu guzti hontatik? ta zeren faltan sentitu duzu gehien?




Ondorioa?... Faltan sentitu?..





Badakit ! Ondoria da egurero dutxatzea ez dala derrigorrezkoa... ta gehien faltan botatzen dena aman kroketak.. ta txipiroak !

Kondenatuak gaude...



Kale egin dute ere San Isidro eguneko festek

Eneritz Maiz Etxarri

Maiatzaren 15a da San Isidro eguna, edota baserriar guztien eguna. Ostiralez egokitu da aurtent, baina koronabirusaren gaitzak harrapatu du, eta ez dira festa egunak edota mahai bueltako bazkari eta afariak egingo.

Gero eta baserriar gutxiago den garai hauetan, herri batzuetan baino ez da ospatu izan San

Isidro eguna, baina Tolosaldean, ohiturari oraindik sendo eusten diote Amasan, Asteasun, Alkizan edota Zizurkilan. Egun oso festak antolatzen dituzte eta batzuetan egun bat baino gehiagotan ospatu izan dute San Isidro. Aurtent, ordea, Covid-19ak, momentuz behintzat ez du festa-rako aukerarik emango.

Baliarrain, Bidania-Goiatz, Abaltzisketa, Altzo edota Oren-

daingo baserriarrek ere urteroko hitzordua izan ohi dute eta une batez baserriko lanak utzi eta elkarrekin egin izan dute otordu ederra. Baina aurtent, festa eguna alde batera utzita, natura eta animaliak euren eguneroko bizitza egiten jarraituko dute. Ez dute eraginik izan, eta baserriar ia guztiak belarrak moztu eta jasotzen ari dira neguan ere jatekoa izateko.



Asteasun iazko San Isidro egunean ere idi probak izan zituzten. IRATI URDALLETA

Bidania-Goiazko Udalak herritarrek gogoan, gastuak atzeratu ditu

2020ko egutegi fiskalari dagozkion zergak kobratzeko epeak atzeratu ditu eta familia ugarienezako hobaria eskatzeko epea zabaldu

E. Maiz Bidania-Goiatz

Bidania-Goiazko Udalak bizi den krisialdi egoera kontuan hartu, eta 2020ko egutegi fiskalari dagozkion gastuak atzeratzea erabaki du.

2020ko lehen sei hilekoari dagokion ura eta hondakinen zergak uztailaren 15etik abuztuaren 31 bitartean kobratuko ditu, eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, berriz, irailaren 1etik urriaren 31 bitartean. Ondasun higiezinaren gaineko zerga, hau da, kontribuzioari dagokion, abuztuaren 1etik irailaren 15a bitartean ordaindu beharko da. Era berean, udalak alokairuan dituen Kontzeju eta Dendale osatuak eta udal etxebizitzaren maizterrak, egoera ekonomikoa kontuan hartuta, alokairua eta gastuak ordaintzetik salbuetsi

ditu. Horrez gain, familia ugarienezako hobariaren eskaria egiteko aukera zabaldu du. 2020/10 Alkatetza Dekretuaren bidez eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzan xedatzen da. Familia ugarienezako hobariaren eskaria udaltzeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, eta ekainaren 30a arteko epea izango dute familiak. Eskari eredu ofiziala erabili beharko da, eta udaleko webgunean lortu daiteke.

LAGUNTZA SAREA

Bukatzeko, Saiatz mankomunitateko gizarte zerbitzuetatik gogorarazi nahi izan dute adinekoei zein beharra dutenei laguntzeko laguntza sareak martxan jarraitzen duela. Zerbitzu horren zeregin nagusia erosketak etxera eramatea izango da.

1.200 maskaratik gora egin dituzte Amezketan

Udalak boluntarioek egindako maskarak etxetik banatu ditu, eta 65 urtetik gorakoentzat FFP2 maskarak erostea erabaki du

E. Maiz Amezketa

Duela bi aste egin zuen deialdia Amezketa Udalak maskarak egiteko boluntarioak eskatuz. Ordu gutxian, «izugarritzko» erantzuna jaso zuten eta udaltetik eskerrak eman nahi izan dituzte. Lan horietan aritu diren guztiak, Aralar paper fabrika eman dieten «material guztiagatik» eta Ados lentzeria aipatu dituzte, azken honek gomak eta hariak eman dituelako.

Maskara hauek egiterako garaian «higieine neurriak» errespetatu dituztela nabarmendu du udalak eta gehitu du egin ondoren «isolatuta» eduki dituztela denbora tarte batez. Boluntarioek helduentzat eta haurrentzat egin dituzte maskarak, eta etxetik banaketa egin du udalak.

Bestetik, Amezketa farmaz-

ziarekin hitz egin du udalak: «Hauek ere gogotik ari dira lanean, eta datozen asteetan FFP1 motako maskarak bertan erosi ahal izango direla esan digute». Maskarak erosteko zailtasunak dituztenengana zuzendu da Amezketa Udalak: «Erosteko zailtasunak dituztenek udaltetik txer deitu dezakete boluntarioek egindako maskara gehiago eskatzeko, eta etxera eramango dizkiegu». Gainera, 65 urtetik gorako herritar guztientzat FFP2 motako maskarak erostea erabaki duela esan du. Gestioak egiten aritu dira, eta dena «ondo bidean», maskara horiek ere banatuko dituzte udaltetik. «Gogorazi nahi dugu ezarritako dauden neurriak zenbat eta hobeto bete, orduan eta lehenago egingo diogula aurre larrialdi honi», gaineratu du.

Aurrerago jakinaraziko du diru laguntzen gaineko informazioa

Alegiako Udalak herriko talde eta eragileei bideratzen dizkien laguntzen berri egoerak ahalbidetean emango du

Erredakzioa

Alegiako Udalak urtero diru laguntzak bideratzen ditu herriko hainbat talderentzat eta elkarterentzat. Egoerak ahalbidetzen duenean jakinaraziko die nola eskatu beharko dituzten.

Urtero egiten den deialdian epe bat izaten dute diru laguntza eskatu nahi duten elkarteek. Taldeek izena emateaz gain, eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztu behar izaten dute. Bizi den ezohiko egoeraren aurrean, elkarteek gai honen inguruko informazioa helaraziko zaiela adierazi du udalak.

Bertan zehaztuko zaizkie aurtengo urteari dagozkion laguntzen asmoak zeintzuk diren.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Saskiratzeak oraingoak akabo

Saskibaloiaaren arduradunek bukatutzat eman dituzte ligak; TAKE klubeko bi talde nagusiak denboraldia itxi eta datorrenari begira jartzeko moduan dira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Saskibaloia taldeek asteartean jaso zuten ligak bukatu direneko erabakia. Ez da maila jaitsierarik izango, ezta igoyerarik ere. Eskualdeko bi talde nagusiei, TAKE klubeko gizonezkoen eta emakumezkoen senior taldeei, ez die hainbeste eragin, sailkapenaren erdialdean baitzeuden etenaldia ezarri zenean. Hori bai, bertako kideek gustura jaso dute aspaldian esperoan zeuden erabakia. Orain, denboraldiari amaiera eman diezaioke.

Gizonezkoen taldea, Redline Mekanika Take, 1. mailan nazionalen dago, eta zortzigarren amaitu dute liga. Espainiako Federazioak kudeatzen du gorago ko liga eta beraiena EAEko Federazioak. «Espainiakoak talderik ez dela jaisten erabaki duenez, EAEko federazioak inor ez igotzea erabaki du», esan du Jon Azaldegik entrenatzaileak.

Lortutako zortzigarren postuari «pena pixka batekin» begiratzen dio. «Denboraldia oso joko maila onarekin hasi genuen, bi garaipen bikain lortuz. Gerora zerbait gehiago falta izan zaigu, parekatuta izan ditugun partidak irabazteko», zehaztu du Azaldegik. «Horregatik geratu naiz zapore gazi-gozo batekin. Hobeto egin genezake eta partida gehiago irabazi». Bestalde, ez duela hainbeste inporta gaineratu du, taldeak duen mailaren arabera egungo kategoria dago kirolako.

TAKE emakumezkoen lehen taldeak Gipuzkoako ligako 1. mailan jokatzeko du, eta aurtengo denboraldi berezia seigarren postuan amaitu du. «Ikusten genuen oso zaila egingo zela denboraldia bukatzea», esan du Iñigo Irurtzun entrenatzaileak. «Gainera jakinik Gipuzkoako lehen mailan gaudela, eta ez dugu la ez ezer irabazten eta ezer galtzen ere, nik uste dut erabaki onena hartu dela, eta behingoz itxitzat eman dezakegu denboraldia».

Lehenengo urtea izan da Irurtzunentzat taldeko lehen entrenatzaile moduan, eta balantzea «oso positiboa» izan dela dio. Denboraldiaren hasieran zituz-



Leyre Jauregi TAKE taldeko jokalaria eta Redline Mekanika TAKEko Miguel Cruz euren etxeetan entrenatzen. ATARIA

ten helburuak ez zeudela emaitzei begira eginda zehaztu du: «Ziklo berri bat hasi zen, eta helburu nagusia zen jokalaria ohi-tzea egoera berri honetara. Helburu nagusia taldea egitea eta mantentzea zen, batez ere animikoki eta gure arteko harremanei begira, eta uste dut lortu dugula hori, eta horrek ekarri du seigarren postuan sailkatzea, aurreko denboraldia baino bi postu gorago». Jokoaren aldetik gorabeherak izan dituztela ere gaineratu du, partida batzuk «oso ondo» jokatu eta beste batzuk «oso gaizki».

GOGORRA ETA ARRAROA

Konfinamendu egoeran jokalariei etxean jardura fisikoa egiteko ohitura mantentzea gogorra egingo zitzaizela pentsatzen du Azaldegik. «Astero bidaltzen genizkien halako entrenamendutxo batzuk, ez zezaten sasoirik galdu. Baina kantxako lanik gabe, eta kontuan hartuta kirol honetan taldekideen arteko ko-

ordinazioa oso garrantzitsua dela, bigarren maila batean gartzeko da etxean egin daitekeen lan hori», zehaztu du. Hemendik aurrera egoera berezi bat ere biziko dute saskibaloia jokalariek, beste kirolekin gertatuko den moduan. «Normalean udan izaten da atsedena, eta guri gertatu zaigu etxean sartuta bi hilabete eta gero, beste bi edo hiru hilabete oso luze gertatu daitezkeela, batez ere lehiarik gabe», esan du Azaldegik.

Irurtzunek gaineratu duenez, «arraroa» egin zaie konfinamendu egoera: «Lehen ohituta geunden astero pila bat ordu elkarrekin egoten, entrenamenduetan eta asteburuko partidetan. Ikusi dugu jokalariek errutina bat hartu dutela eta barruko ariketa fisikoki garrantzia eman diotela, eta, beraz, entrenatzaileek ez dugu ikaragarritzko presioa jarri kirola egin zezaten. Beraz, pozik gaude jokalarien jarrerarekin». Talde giroa mantentzeko hainbat dinamika egin dituzte, «ba-



tez ere elkarrekin egon eta umore pixka bat sartzeko, eta balio izan du kontaktua mantentzeko».

AZALDEGIK EZ DU JARRAITUKO

Kluba datorren denboraldira begira jarri da. Maiatza horretarako garaia izan ohi da, taldeak egituratu eta entrenatzaileak lotzeko, eta horretan ari dira arduradunak. Hain justu, Azaldegik ez du jarraituko lehen taldearen entrenatzaile izaten: «Erabakia otsailetik hartuta nuen, eta klubeko arduradunek orain hiruzpalau aste galdetu zidatenean jarraituko ote nuen, ezezkoa esan nien. Arrazoi nagusia denbora eta eskakizun maila izan da. Proiektu batean sartzen naizenean ehuneko ehuna ematea eta gauzak ahal den ondoen egitea gustatzen zait, eta aurtengo frustrazio momentu asko izan ditut, iruditzen zitzaizkidan taldeari ez nintzela ari eskaintzen behar zuen denbora guztia. Irailean lan berri batean hasi nintzen eta buru-be-

larri egon naiz horretara, eta aurrera begira egoera hori ez da aldatuko».

Azaldegik klubari «bere ale-txoa» eskaintzen jarraituko duela gaineratu du, baina lehen taldearen ardura izan gabe. «Jokalaria multzo handi batek jarraituko duela uste dut eta, beraz, beraiekin lan egitea posible den bitartean, taldeak jarraipena izango du», esan du.

Bere aldetik, Irurtzunek dioenez, taldearen denboraldia ixteko bilera bat egingo dute Internet bidez, taldeko kide bakoitzak azaltzeko aurtengo esperientzia nolakoa izan den. «Badakit kluba datorren denboraldirako gauzak lotzen ari dela, baina nesken lehen taldeko entrenatzaileok ez dugu gure artean hitz egin», zehaztu du Irurtzunek. «Lehenengo jakin nahi dugu jokalariek zer esaten duten. Gure balantzea, noski, positiboa izango da, eta informazioa jaso ondoren joango gara ikusten datorren urtera begira zer erabakitzen dugun».



OSTEGUNA, 2020KO MAIATZAK 7
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Etxebarri, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ZORION AGURRAK



Urte askoan Manex!



Urte askoan Manex!
Eutsi goiari!

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

OSTEGUNA 07

ATARIA IRRATIA

09:00-13:00. Postalak bidaia-
tarte, Kantazgora eskualdeko
musikarien proposamenekin osatu-
tako musika saioa, Patxadaz elka-
rrizketen tarte, kolaboratzaileen
tarteak eta Entzuteko jaiok musi-
ka saioa.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko
irratiek eginiko magazina.
19:00. Ahoz Aho Ipuinak ez dira gel-
dituko
20:00. Playback Ataria. Musika
saioa, Adriana Gaultier DJrekin.

28 KANALA

11:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Itsaso
Ugartemendia)
11:30. Gaurkoan Tolosaldetik
12:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Sonia
Tapia)
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik
22:00. Amets yoga estudioa
21:30. Gaurkoan Tolosaldetik

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Ben-
goetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz

Galarza, Larramendi, 6 behea 1.
943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Antzeko giroa. Zeruan
hodeiak eta ostarteak tar-
tekatuko dira egun osoz.
Arratsaldean bero hodeiren bat edo
beste agertuko da, baina inolako ga-
rrantziarik gabeak, egun osoz ateri
eutsiko diolarik. Haizeak ekialdeko
ukitua izango du eta termometroek
koskatxo bat gora egingo dute, ma-
ximoa 25-26 gradu artean errendi-
tuz.
Bihar. Giro beroa baina eze-
gonkorra. Goizean eta
arratsaldeko lehen orduak
arte giro argia izango da.
Goi-hodei dezente agertuko da ze-
ruan, baina ez diote eguzkiari traba-
rik egingo. Arratsaldeko lehen ordu-
tik aurrera bero-hodeiak garatuko
dira eta iluntze alderako ekaitzak jo
dezake. Ekaitzak ez dira oso gogo-
rrak izango, baina txokoren batean
mardul botako du. Haizeak hego-
ekialdetik joko du, bizi eta tenpera-
turek 27-29 gradu artean joko
dute goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain
hartzen egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

URTE ASKOAN MANEX!

DOINUA: Pasaiaiko herritik....

Orain bizitu degu,
libertate falta
begik irekitzeko
askontzat txanda da.
askatasunik eza
oxigeno falta,
kartzelan egotea
askoz latzagoa da.

Aurten konfinamendu
garaian heldu da
Maiatzaren zazpia
zorion agurra
beste urte betetzea
tokatu zaizuna
1000 kilometrota
etxetik urrunduta.

Urte askoan Manex
etxekoen partez
ea laister batean
ospatzeko gauden
Ibarrako frontoian
pelotan jolasten
eta ikusiko degu
askatasuna zer den.



**EUTSI
GOIARI!**